ELGOIBARKO

ADINEKO-ENTZAKO GIZARTE ZERBITZUEN

GIDA

Eskura gaitugu

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

Kaixo!

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

Adinekoak gizartearen eta familien funtsezko zutabe dira. Hori dela eta, adinekoak eta haien ongizatea Elgoibarko Udalaren ardura ere bada.

Elgoibarko Udalean, ditugun baliabide eta zerbitzuen bidez, adinekoei laguntzeko eta sortzen zaizkien beharrei erantzun ahal izateko lan egiten dugu.

Helburua da pertsona bere etxean eta familia eta gizarte bizitzan ahalik eta luzaroen bere kabuz eta baldintza fisiko zein mental onetan egotea.

Gida honek modu erraz eta laburtuan jasotzen ditu adinekoen eta haien familien eskura dauden zerbitzuak eta baliabideak, eta horiek ezagutzera eta erabiltzera gonbidatzen ditugu.

Harro gaude gure adineko pertsonez eta haiek merezi duten bezala zaindu ahal izateaz.

Beti zuen esanetara

Ane Beitia Arriola
Elgoibarko alkatea

Blanca Larrañaga Iriondo
Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia

AUTONOMIA SUSTATZEKO
BALIABIDEAK

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

1_ INFORMAZIO, BALORAZIO, ORIENTAZIO ETA DIAGNOSTIKO ZERBITZUA
2_ TELELAGUNTZA
3_ OTORDUA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
4_ ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA
5_ BOTIKAK OPTIMIZATZEKO ZERBITZUA
6_ MENDEKOTASUNAREN BALORAZIOA
7_ DESGAITASUNAREN BALORAZIOA
8_ OZTOPOAK KENTZEKO LAGUNTZA-PRODUKTUAK ETA LAGUNTZAK
9_ "SENDIAN" PROGRAMA
10_ ZERBITZUARI LOTUTAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA
11_ LAGUNTZA PERTSONALERAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA
12_ FAMILIA INGURUNEKO ZAINKETETARAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA
13_ EGUNEKO ZENTROA
14_ ALDI BATERAKO EGONALDIAK EGOITZETAN
15_ EGONALDI IRAUNKORRA EGOITZETAN

NON ESKATZEN DIRA?
Gizarte Zerbitzuen Sailean
Santa Ana, 2 - 20870 ELGOIBAR

ORDUA ESKATUTA
Aurretik ordua eskatuta lan egiten dugu, zerbitzu hobea eman ahal izateko.

Nola eska daiteke?
Aurrez aurre: Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ), Santa Ana, 2
Telefonoz: 943 74 10 50
Posta elektroniko bidez: arreta@elgoibar.eus

HAZeko ORDUTEGIA: 7:30-15:30

1_ INFORMAZIO, BALORAZIO, ORIENTAZIO ETA DIAGNOSTIKO ZERBITZUA

ZERTAN DATZA?

Elgoibarko Udalak gizarte langile talde bat jartzen du herriko pertsona guztien eskura, eta dauden gizarte-baliabideei buruzko informazioa, balorazioa, diagnostikoa eta orientazioa ematen dute egoera bakoitzera egokituta.

NORI LAGUN DIEZAIOKE?

Elgoibarko herritar guztiei.

eta niri, nola lagun diezadake?

Gizarte Zerbitzuen Sailean erreferentziako gizarte langile bat izendatuko dizugu. Zure bizi-prozesuan lagunduko dizu, eta une bakoitzean eman beharreko urratsei buruzko aholkuak emango dizkizu.

2_ TELELAGUNTZA

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

ZERTAN DATZA?

Laguntza zerbitzu tekniko bat da, eta telefono linearen bidez, erabiltzaileen larrialdi egoerei erantzuteko berariaz gaituta dauden langileekin harremanetan jartzeko aukera ematen du. Urteko egun eta ordu guztietan dago erabilgarri.

NORI LAGUN DIEZAIOKE?

Elgoibarren erroldatuta dagoen eta bakarrik bizi den edo bakarrik denbora asko igarotzen duen adineko edonori.

PREZIOA

Onuradunak zerbitzuaren kostuaren zati bat ordainduko du bere ahalmen ekonomikoaren arabera. Kasu gehienetan hilean 4 euro ordaintzen dira, eta kasu batzuetan zerbitzua doakoa izan daiteke.

eta niri, nola lagun diezadake?

Urteko egun eta ordu guztietan, eguneko 24 orduetan, botoi baten beste aldean norbait izateak segurtasuna emango dizu. Gaixo bazaude, erortzen bazara, beldurtzen zaituen edozein egoeratan... botoia sakatu eta berehala erantzungo dizun profesional batekin hitz egingo duzu.

Behar izanez gero, larrialdietako zerbitzuei pasatuko die abisua, eta zure familiartekoak aurkituko ditu.

3_ OTORDUA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

ZERTAN DATZA?

Astero etxera otordua eramaten duen zerbitzu bat da, eta menua egokituta dago.

NORI LAGUN DIEZAIOKE?

Eginkizun batzuetarako, hau da, janaria prestatzeko, mugitzeko... mugak dituen edonori.

PREZIOA

Prezioa aldatu egiten da eskatzen den zerbitzu-motaren arabera (bazkaria bakarrik, bazkaria eta afaria, egun batzuetan bakarrik, aste osoan...).

eta niri, nola lagun diezadake?

Otorduak prestatzeko zailtasunak badituzu, zure etxean otordu osasuntsuak egiteko aukera emango dizu.

4_ ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

ZERTAN DATZA?

Laguntza eta prebentzio zerbitzu bat da, eta mendekotasun egoeran edo mendekotasun arriskuan dagoenari laguntzeko da. Etxeko laguntza eta/edo laguntza pertsonala ematen ditu, eta beharra duen pertsonari etxean bertan moldatzeko eta komunitatean integratzeko laguntza ematen dio, isolamendu-egoerak saihesteko.

NORI LAGUN DIEZAIOKE?

Autonomia galdu izanaren ondorioz, bere etxean bizitzen jarraitu ahal izateko, aldi batez edo modu iraunkorrean, etxeko laguntza edo/eta laguntza pertsonala behar duen pertsonari.

Zehazki:

- Autonomia pertsonalerako zailtasunak dituzten 60 urtetik gorako pertsonei.
- Mendekotasun, desgaitasun edo autonomia pertsonalerako zailtasun egoeran dauden pertsonei.
- Lehen aipatutako kolektibo horietakoak ez izan arren, zaurgarritasun egoeran daudenei.

PREZIOA

Zerbitzuaren kostua Elgoibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta erabiltzaileak ordaintzen dute. Erabiltzaileak ordaindu beharreko kopurua haren ahalmen ekonomikoaren arabera ezarriko da.

ORDUTEGIA

Etxeko laguntzailearen ordutegia eta ordu kopurua gizarte langileak ezarriko ditu, egindako balorazioaren arabera.

eta niri, nola lagun diezadake?

Etxeko laguntzaileak esfortzurik handiena eskatzen duten lanak edo zuk egin ezin dituzunak egiten lagunduko dizu, hala nola: zeure burua garbitzen, janzten, etxea garbitzen, arropa lisatzen, kudeaketak eta erosketak egiten, etab.

5_ BOTIKAK OPTIMIZATZEKO ZERBITZUA

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

ZERTAN DATZA?

Botiken erabilpena optimizatzeko zerbitzu bat da, eta Elgoibarko Udalaren eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkartearen artean egindako lankidetza-hitzarmenaren esparruan sortutako ekimena da.

NORI LAGUN DIEZAIOKE?

Elgoibarko Udalak eskaintzen duen Etxez etxeko laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileei edo haien ezkontideei edo bikotekideei.

PREZIOA

Zerbitzu honek ez du kosturik Etxez etxeko laguntza Zerbitzua erabiltzen dutenentzat.

eta niri, nola lagun diezadake?

Zure konfiantzazko farmaziak blister batzuetan prestatuko dizkizu hileko botikak, eta, horrela, medikazioa zuzen hartu ahal izango duzu, botikak hartzea ahaztu edo okerreko botikak hartu gabe.

6_ MENDEKOTASUNAREN BALORAZIOA

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

ZERTAN DATZA?

Autonomia fisikoaren, zentzumenezkoaren, psikikoaren eta/edo intelektualaren gabeziagatik edo galeragatik mendekotasun egoeran dauden eta eguneroko jardueretan laguntza behar duten pertsonen mendekotasun maila baloratzen da.

Mendekotasunaren balorazioan hiru maila daude (I., II. eta III. maila). Balorazioan ezarritakoaren arabera, interesdunari dagozkion zerbitzuak eta prestazioak aitortzen zaizkio.

NORI LAGUN DIEZAIOKE?

Eskaera egiten duen unean Elgoibarren erroldatuta dagoen edozein pertsonari.

eta niri, nola lagun diezadake?

Zure egoera pertsonalari dagokion mendekotasun mailaren balorazioa egingo zaizu. Balorazio horrek mendekotasun maila jakin bat izendatzen badizu, maila horrek barne hartzen dituen zerbitzuak eta prestazioak eskatu ahal izango dituzu. Gizarte langileak emango dizu zerbitzu eta prestazio horiei buruzko informazioa.

7_ DESGAITASUNAREN BALORAZIOA

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

ZERTAN DATZA?

Murriztapen fisiko, psikiko eta/edo zentzumenezkoa duen edozein pertsonari baloratzen zaio desgaitasuna eta desgaitasun hori zer mailatakoa den; baita berrikusi ere, hobekuntza, larritzea edo diagnosi-akatsa izan badu. Desgaitasuna duen pertsonatzat aitortua izateko, desgaitasunak % 33koa edo handiagoa izan behar du.

NORI LAGUN DIEZAIOKE?

Eskaera egiteko unean Elgoibarren erroldatuta egonik, desgaitasuna duen eta eskabidea aurkeztu baino gutxienez 6 hilabete lehenago diagnostikoa edo tratamendua egin zaion edozein pertsonari.

eta niri, nola lagun diezadake?

Zure egoera pertsonalari dagokion desgaitasun mailaren balorazioa egingo zaizu. Balorazio horrek desgaitasun portzentaje bat izendatzen badizu, portzentaje horren baitan dauden zerbitzuak eta prestazioak eska ditzakezu.

8_ OZTOPOAK KENTZEKO LAGUNTZA-PRODUKTUAK ETA LAGUNTZAK

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

ZERTAN DATZA?

Dirulaguntzak eskaintzen dira eta/edo laguntza-produktuak lagatzen dira, desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonak etxean geratzea errazteko, bai eta eguneroko jardueretan beren autonomia eta sozializazioa bermatzeko ere.

Aldez aurreko baldintza da: mendekotasun egoeran dagoen edo desgaitasunen bat duen pertsona gisa baloratua izatea. Udal Gizarte Zerbitzuetan hasten den aurretiazko izapidea da hau.

Jarduera, obra edo erosketa hasi baino lehen eskatu behar dira.

NORI LAGUN DIEZAIOKE?

Eskaera egiteko unean Elgoibarren erroldatuta egonik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko erroldan gutxienez urtebeteko antzinatasuna duen edozein pertsonari; betiere, desgaitasunen bat duen pertsona gisa edo mendekotasun egoeran dagoen pertsona gisa baloratua izan bada eta aurreko 6 urteetan antzeko laguntzarik jaso ez badu.

eta niri, nola lagun diezadake?

Informazioa eta aholkua emango zaizu laguntza-produktuei buruz (adib.: ohe artikulatuak...) eta oztopoak kentzeari buruz (adib.: bainuontzia/dutxa aldatzea), eta laguntza ekonomikoak emango eta/edo laguntza-produktuak lagako zaizkizu, zure ohiko etxebizitzan bizitzen jarrai dezazun.

9_ "SENDIAN" PROGRAMA
FAMILIARTEKO ZAINTZAILEARI ARRETA EMATEKO

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

ZERTAN DATZA?

Mendekotasun egoeran dagoen familiarteko bat zaintzen ari diren pertsonei laguntzeko programa bat da.

Laguntza-baliabideak: formakuntza, ikastaroak, laguntza taldeekin hamabostean behin bilera, banakako laguntza psikologikoa, atseden hartzeko programa eguneko zentroetan eta egoitzetan...

NORI LAGUN DIEZAIOKE?

Elgoibarren erroldatuta dauden zaintzaileei.

eta niri, nola lagun diezadake?

Zaintzaile gisa zainduko zaitugu, eta laguntza eta babesa emango dizugu erabilgarri ditugun baliabideen bitartez.

10_ ZERBITZUARI LOTUTAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

ZERTAN DATZA?

Dirulaguntza ekonomikoa da, eta bere helburua da eguneko zentro bateko edo egoitza iraunkor bateko plaza pribatu bat ordaintzen laguntzea, mendekotasuna duen pertsona plaza publiko edo itundu bat eskuratzeko itxaron zerrendan dagoen kasuetan.

NORI LAGUN DIEZAIOKE?

Plaza publiko bat eskuratzeko itxaron zerrendan daudenei eta une honetan egoitza zerbitzua edo eguneko arreta plaza pribatu batean jasotzen duten pertsonei.

eta niri, nola lagun diezadake?

Dirulaguntza bat jasoko duzu eguneko zentroko zerbitzu edo egoitza pribatua ordaintzen laguntzeko, plaza publiko edo itundu bat eskuratzeko zain zauden bitartean.

11_ LAGUNTZA PERTSONALERAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

ZERTAN DATZA?

Prestazio ekonomiko honen bitartez, mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko laguntzaile pertsonalen kontratazioak eragindako gastuak ordaintzen lagundu nahi da.

Eskaera egin aurretik: Gipuzkoako Foru Aldundiaren mendekotasunaren balorazioa behar da, eta, horretarako, Udaleko Gizarte Zerbitzuetan eskatu behar da hitzordua.

NORI LAGUN DIEZAIOKE?

Elgoibarren erroldatuta eta mendeko egoeran dagoen, eta harekin ahaidetasun harremanik ez duen 18 urtetik gorako pertsona batek zaintzen duen edozein pertsonari. Zaintzaileak gizarte-segurantzan alta emanda egon behar du, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatzen duen formakuntza edo kualifikazioa izan behar du.

eta niri, nola lagun diezadake?

Zurekin ahaidetasun edo familia harremanik ez duen pertsona bat kontratatzen baduzu, kontratazioa ordaintzeko dirulaguntza emango zaizu.

12_ FAMILIA INGURUNEKO ZAINKETETARAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

ZERTAN DATZA?

Dirulaguntza bat da, eta mendekotasuna duen pertsonarekin bizi den zaintzaileak pertsona horri ematen dion arretak eragindako gastuak ordaintzen laguntzeko da. Zaintzailea mendekotasuna duen pertsonaren senidea izan eta pertsona horrekin batera erroldatuta egon beharko da.

Eskaera egin aurretik: Gipuzkoako Foru Aldundiaren mendekotasunaren balorazioa izan behar da, eta, horretarako, Udaleko Gizarte Zerbitzuekin harremanetan jarri behar da.

NORI LAGUN DIEZAIOKE?

Elgoibarren erroldatuta eta mendekotasun egoeran egonik, familiarteko batek zaintzen duen edonori.

Baldintza hauek bete behar dira:

- Zaintzaileak 18 urtetik gora izatea, eta mendekotasuna duen pertsonaren 3. mailara arteko ahaidea izatea.
- Zaintzaileak bere familia-unitatearekin batera erroldatuta egon behar du mendekotasuna duen pertsonaren etxean.
- Udaleko Gizarte Zerbitzuek egindako txostenaren bidez ematen den zaintza egokia dela adieraztea.
- Mendekotasun egoerak eragindako arreta eta zaintza mendekotasuna duen pertsonaren etxean ematea eta, mendekotasun graduaren eta mailaren arabera, bere beharretarako egokiak izatea.
- Zaintza egokia emateko bizigarritasun eta irisgarritasun egoera egokian dagoen etxebizitza izatea.

eta niri, nola lagun diezadake?

Zu zaintzeko familiarteko baten laguntza baduzu eta adierazitako baldintzak betetzen badituzue, arretak eragindako gastuak ordaintzen lagunduko dizu.

13_ EGUNEKO ZENTROA

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

ZERTAN DATZA?

Eguneroko zerbitzua da, eta egunez, jaiegunak eta asteburuak barne, mendekotasun egoeran dauden pertsonei arreta indibidualizatua eta integrala eskaintzen die, autonomia pertsonala hobetzeko edo mantentzeko, muga funtzionalak konpentsatzeko eta ohiko zaintzaileei laguntzeko.

NORI LAGUN DIEZAIOKE?

Mendekotasun egoera aitortuta duten eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatutako baldintzak betetzen dituzten 65 urtetik gorako pertsonei.

PREZIOA

Zerbitzuaren kostua Gipuzkoako Foru Aldundiak eta erabiltzaileak ordaintzen dute. Erabiltzaileek euren ahalmen ekonomikoaren araberako kopuru bat ordaintzen dute.

eta niri, nola lagun diezadake?

Zentroan aktibo egoten eta zure gorputza eta burua trebatzen lagunduko dizute profesionalek bideratutako jardueren bidez.

14_ ALDI BATERAKO EGONALDIAK EGOITZETAN

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

ZERTAN DATZA?

Mendekotasun edo desgaitasun egoeran dauden adinekoek, egoitzetan, urtean bi hamabostaldiko edo hilabete bateko egonaldiak egiteko aukera dute, familiak atseden har dezan edo eskatzaileak behar puntualei aurre egiteko.

NORI LAGUN DIEZAIOKE?

Indarrean dagoen araudiaren arabera, mendekotasun egoera aitortuta duten adinekoei edo ezintasun egoera aitortua duten pertsonei, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

PREZIOA

Zerbitzuaren kostua Gipuzkoako Foru Aldundiak eta erabiltzaileak ordaintzen dute. Erabiltzaileek euren ahalmen ekonomikoaren araberako kopuru bat ordainduko dute.

eta niri, nola lagun diezadake?

Zerbitzu honek bermatzen dizu eguneroko bizitzan behar dituzun zaintzak eta arreta jasoko dituzula zure etxetik kanpora aldi batez laguntza behar baduzu, bai zaintzen zaituen pertsonari behar-egoeraren bat sortu zaiolako, bai zure ingurunean sortu diren eta behar bezala erantzun ezin zaien beharrei aurre egiteko.

15_ EGONALDI IRAUNKORRA EGOITZETAN

ZERTAN DATZA?

Ohiko bizitokia edo bizitoki iraunkorra eskaintzeko zerbitzua da, eta mendekotasun egoeran dauden eta, intentsitate handiagoko laguntza behar dutelako, euren premiak ohiko ingurunean bete ezin dituzten adinekoei zuzenduta dago. Zentro horietan arreta integrala eta jarraitua eskaintzen zaie.

Egoitzak intentsitate handiko zentroak dira, eta bermatzen dute:

- Zaintzaileen presentzia etengabea –eguneko 24 orduetan– izatea.
- Zerbitzu medikoa eta erizaintzako zerbitzua izatea.
- Profesionalen diziplina anitzeko talde baten laguntza, ongizate fisikoa, psikologikoa eta soziala xede duen arreta integrala eskaintzeko beharrezkoak diren profilak betetzen dituena.

NORI LAGUN DIEZAIOKE?

Mendekotasun egoera aitortuta duten eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatutako baldintzak betetzen dituzten 65 urtetik gorako pertsonei.

PREZIOA

Zerbitzuaren kostua Gipuzkoako Foru Aldundiak eta erabiltzaileak ordaintzen dute. Erabiltzaileek euren ahalmen ekonomikoaren araberako kopuru bat ordainduko dute.

eta niri, nola lagun diezadake?

Zerbitzu honek bermatuko dizu zaintza eta arreta etengabe jaso ahal izatea. Eguneko 24 orduetan profesional talde batek zainduko zaitu, eta zure eguneroko bizitzan behar duzun guztian lagunduko dizu.

AUTONOMIA SUSTATZEN LAGUNTZEN DUTEN
BALIABIDE KOMUNITARIOAK

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

16_ ELGOIBAR SASOIAN
17_ PARKE ETA IBILBIDE OSASUNGARRIAK
18_ ERRETIRATUEN ZENTROA

NOLA ATERA PROBETXUA ZERBITZU HORIEI?

Informazioa behar izango bazenu, informazio hori non eska dezakezun eta zerbitzu horietako bakoitza non erabil dezakezun adieraziko dizugu.

16_ ELGOIBAR SASOIAN

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

ZERTAN DATZA?

Programa oinarrizko hiru ardatzetan oinarritzen da:

- **Jarduera fisikoa:** ariketa fisikoen bitartez pertsonen oinarrizko gaitasun fisikoak mantentzea.
- **Ahalduntze pertsonala:** ongizatea, bizi kalitatea eta garapen pertsonala sustatzea.
- **Orientazio zerbitzua:** jarduera eta bizitza aktiboagoa izateko aholku eta orientazioa ematea.

NORI LAGUN DIEZAIOKE?

Parte hartu ahal izango dute bizitza aktiboa izan nahi duten 60 urtetik gorako elgoibartar guztiek.

NON ESKA DAITEKE ZERBITZUA?

Programa honetan parte hartzeko interesa duten pertsonek Olaizaga Kiroldegian eman dezakete izena.

San Roke Kalea, 1 / Ordutegia: 7:00-15:00h. / T.: 943 74 44 15

eta niri, nola lagun diezadake?

Zure adineko jendearekin elkartzeko leku bat izango duzu, bertan osasun fisikoa eta psikikoa landuko dituzu, eta horrek, hobeto sentitzen lagunduko dizu.

17_ PARKE ETA IBILBIDE OSASUNGARRIAK

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

ZERTAN DATZA?

Elgoibarrek hainbat ekipamendu ditu aire zabalean, ariketa fisikoa egiteko eta gure gorputza aktibatzeko. Aparatu horien ondoan, behar bezala erabiltzeko argibideak aurkituko dituzu.

NORI LAGUN DIEZAIOKE?

Bizitza aktiboa eta osasungarria izan nahi duten udalerriko adineko pertsona guztiei.

NON ERABIL DAITEKE ZERBITZUA?

Instalazio horiek Maala, Urazandi eta San Roke parkeetan (pista beltza) eta Mintxetako aparkalekuaren ondoan daude.

Gainera, Elgoibarrek eskaintzen dizun edozein bide aprobetxa dezakezu zure osasuna zaintzeko, mantentzeko edo hobetzeko.

Ingurune naturalagatik, bi ibilbide gomendatzen dizkizugu bereziki: Mintxeta Kirol Gunearen inguruan, Sallobenteraino, eta Maltzaga bidegorria.

Bestelakoak: Lerun, Karkizao, Albitxuri eta Beraseta.

eta niri, nola lagun diezadake?

Ariketa fisiko leun eta moderatua egiten baduzu, nabarmen lortuko duzu osasuna hobetzea.

18_ ERRETIRATUEN ZENTROA

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

ZERTAN DATZA?

Elgoibarko erretiratuen eta pentsiodunen zentroaren helburua da, bertan eskaintzen diren zerbitzuen bidez, adinekoen elkarbizitza eta parte-hartze soziala sustatzea eta bizi-baldintzak hobetzea. Herritar guztiei irekita dagoen kafetegia ere badu.

Antolatzen dituen jarduerak:
Memoria tailerrak, era askotako gaiei buruzko belaunaldien arteko lantegiak, txangoak, dantza ikastaroak, zineforumak, gai ezberdinei buruzko hitzaldiak, karta txapelketak, Altzolan San Juanetako sardina jana eta adinekoen astea, besteak beste.

NORI LAGUN DIEZAIOKE?

Erretiratuei eta pentsiodunei, eta, orokorrean, Elgoibarren erroldatuta dauden adinekoei.

NON ERABIL DAITEKE ZERBITZUA?

Erretiratuen Zentroa
San Frantzisko, 21 – 1 (King-Kong eraikina)
Telefonoa: 943 74 05 26

eta niri, nola lagun diezadake?

Aisialdirako eta entretenimendurako lekua izango da zuretzat, eta bertan lagunekin egon ahal izango zara. Pertsonak ezagutzeko eta jarduera ezberdinetan parte hartzeko aukera izango duzu. Azken batean, zure bizi kalitatea hobetzen lagunduko dizu.